

26. UNITATEA



ALBISTEAK
EMATEN

PROGRAMAZIOA: 26. UNITATEA

ALBISTEAK EMATEN

1. JARDUERA

Irakurri ezazu albiste hau:

**72 urteko gizonezko bat hil zen atzo gauean,
arrantzan ari zela ibaira erorita**

**Arrantzan ari zela uretara amildu, eta hil egin zen 72 urteko
gizonezko bat Tolosan (Gipuzkoa).**

21:20 aldera gertatu zen ezbeharra. Lau metroko altueratik behera
amildu zen. Lekuko baten arabera, ondoeza egin zitzaion gizonari, eta
horregatik erori zen zubitik ibaira.

Erantzun galdera hauei:

- *Zer gertatu zen atzo Tolosan?*
-

- *Zenbat urte zituen arrantzaleak?*
-

- *Zenbat metroko altueratik erori zen?*
-

- *Zergatik erori zen?*
-

PROGRAMAZIOA: 26. UNITATEA

ALBISTEAK EMATEN

2. JARDUERA

Konta iezaiozu zure ikaskideari atzo Tolosan gertatu zena:

-Kaixo, egunon. Ba al dakizu atzo Tolosan gertatu zena...?

-Ez, zer gertatu zen ba?

-

3. JARDUERA

Irakurri ezazu albiste hau:

Atzo gauean taberna batek su hartu zuen Zumaian

Suak kalte handiak eragin zituen Zumaiko (Gipuzkoako) taberna batean. Halaber, eraikin osoa hustu behar izan zuten, badaezpada.

Atzo gauean Beobide kaleko 2. atarian dagoen taberna batek su hartu zuen Zumaian.

Badaezpada eraikin guztia hustu zuten suhiltzaileek, eta bi orduz egon ziren bizilagunak etxetik kanpo. Hala ere, suak ez zituen etxebizitzak harrapatu. Tabernan, ordea, kaltea handiak egin zituen.

PROGRAMAZIOA: 26. UNITATEA

ALBISTEAK EMATEN

Erantzun galdera hauei:

- *Zer gertatu zen atzo Zumaian?*

- *Non dago taberna?*

- *Zer gertatu zen eraikinean?*

- *Suak etxebizitzak harrapatu al zituen?*

- *Zer gertatu zen tabernan?*

Konta iezaiozu zure ikaskideari atzo Tolosan gertatu zena:

-Kaixo, egunon. Ba al dakizu atzo Zumaian gertatu zena...?

-Ez, zer gertatu zen ba?

-

PROGRAMAZIOA: 26. UNITATEA

ALBISTEAK EMATEN

4. JARDUERA

Irakurri ezazu iragarpen hau:

bihar eta etziko iragarpena



Bihar, eguraldia zertxobait txartuko da: ipar-ekialdeko haizearekin, pixka bat hoztuko du, eta hodei eta euria egingo du. Elurra, Pirinioetako tontor gorenetan .
Etxi, ipar haizea egingo du, tenperatura hotza eta euri zaparrak. Erriberan, hodeiak eta ostarteak.

Hitz egin zure ikaskidearekin:

-Kaixo, ba al dakizu bihar zer eguraldi egingo duen?

-

-Eta Pirinioetan?

-

-Eta etxi?

-Eta Erriberan?

-